




IKASMAG
ZURE IDEIEN ESZENATOKIA

Imai Blanco, Sara González, Izaro Sanz, Heren Uriarte

1.- PROIEKTUAREN AURKEZPENA:

IkasMag arbel magnetiko berritzailea da, polo positibo eta negatiboak dituen errotuladore berezi batekin funtzionatzen duena, idazteko eta ezabatzeko aukera emanez, erabilera bakarreko materialik gabe.

Proiektuaren helburua da haur hezkuntzako ikasgeletan hondakinak eta produktu toxikoak murriztea, plastikoak, tinta duten errotuladoreak eta klariona ordezkatzuz.

Arbela material seguru, iraunkor eta ingurumenarekiko errespetuzkoekin egina dago, ingurumen-inpaktu txikia eta bizitza erabilgarri luzea bermatuz, eta haur asmatiko edo arnasketa-arazoak dituztenentzat ingurune osasungarriagoa sortuz.